

## Lankidetzeta Plataforma

2009/11/03

MUk ekimenean parte hartu du eta bere ikasleak dinamizatu ditu plataformaren garapenean parte hartu dezaten.

"Nuestra Causa" hiritarren sareak ( [www.nuestracausa.es](http://www.nuestracausa.es)) "denon artean zure hirian" ekimena jarri du abian ( <http://barcamps.nuestracausa.es/colabora/>). Proiektu honen helburua Gasteiz, Bilbo, Donostia eta Getxoko (azken hau ere gehitu da) hiritarrek ideiak proposatuz, beraien hirien hobekuntzan parte hartzea da. Azaroaren 15etik aurrera plataforma baten garapena landuko da Internet bidez proposamenei erantzuna eman ahal izateko eta horrez gain, plataforma hori hiritar eta administrazioen arteko komunikazio gune bihurtzeko.

Zer arazo duzu zure hirian egunerko bizimoduan? Hau da ekimenak egiten duen galdera. Ekimenaren helburua gure hirietako bizimodu publikoan partehartzea indartzea da Internet eta sare sozialen laguntzarekin. "Denon artean zure hirian" proiektuaren lehen fasea hasi da: hiritarrek beraien hiriei buruz dituzten ideiak, kexak eta ekarpenak jasotzea. Epea azaroaren 15ean bukatzen da. Hortik aurrera, lehiaketa bat zabalduko da software-gratuzailerek Internet bitartez aipaturiko arazo horiei aurre egiten lagunduko duen plataformen proiektuak aurkeztu ditzaten. Hala, sare sozial bat eratu litzateke, interes komunak dituzten pertsonak elkarrekin lanean aritu daitezen eta aldi berean, administrazioekin komunikatzeko balio dezan.

Udal politikako erabakiak hartzea hobetu dezaketen ideiak administrazioetara eramango dira plataforma horren bidez. Honek, gobernuan dagoen udal taldearen arteko elkarrizketa ahalbidetuko du.

Emaitzak topaketa batean azalduko dira datorren 2010an.

Informazio gehiago:

- Bilbao: <http://www.colaboraenred.com/ciudades/category/ideas/bizkaia/bilbao/feed/>
- Donostia: <http://www.colaboraenred.com/ciudades/category/ideas/gipuzkoa/donostia/feed/>
- Gasteiz: <http://www.colaboraenred.com/ciudades/category/ideas/araba/vitoria-gasteiz/feed/>
- General: <http://www.colaboraenred.com/ciudades/category/ideas/feed/>

